

Lontxo Oihartzabal jn.  
Lehendakaria

## **04/09 IRIZPENA**

Javier del Campo jn.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Ochoa jn.  
Pilar Ramírez and.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko irailaren 16ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *EAE-ko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko, Helduen Hezkuntzako eta Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako irakasleen lanpostu-zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

### **SARRERA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio *EAE-ko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko, Helduen Hezkuntzako eta Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako irakasleen lanpostu-zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruzko* aginduzko txostena. Era berean, Ikastetxeetako zuzendariaren memoria igorri dio.

### **I.- AURREKARIAK:**

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak haxe dio 13. artikuluan: “Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak”. Ildo horretatik, 14.1 artikulua haxe jaso du: “lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratupeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz”.

Bestalde, Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeak lanpostu-zerrendak arautu eta gutxieneko edukiak zehazten ditu; 47/1993 Dekretuak, berriz, lanpostuen hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak arautzen ditu.

Goian azaldutakoa betetzeko, elkarren segidako lanpostuen zerrendak argitaratu dira. Oraingoan, EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistrenak, DBHko lehen ziklokoak, Helduen Hezkuntzakoak eta Zereginen Ikaskuntzako Ataletakoak, 2004-2005 ikasturtetakoak, igortzen dira.

## **II.- EDUKIA:**

Dekretu-proiektu honek lau artikulua, hiru xedapen gehigarri eta azken xedapen bat du. Artikuluetan aipaturiko eranskinak ere gehitu dira.

Lehenengo artikulua 2003-2004 ikasturteko lanpostu-zerrendak onesten ditu eta lanpostu-zerrenda horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko irakasle hauei erreserbatu zaizkie, alegia: EAEko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako (IV. Eranskina), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (IV. Eranskina), Helduen Hezkuntzako (VI. Eranskina), Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako (VII. Eranskina) eta Lurralde Ordezkaritzetan dauden plazetako (VIII. Eranskina) irakasleei. Eranskinetan ikastetxez ikastetxe ageri dira espezialitateen, hizkuntza eskakizunaren eta derrigortasunaren arabera identifikatutako lanpostuak.

Bigarren artikulua I. Eranskinera igortzen gaitu ikastetxeen zerrenda aztertzeko, II. Eranskinera ikastetxe publiko batzuk kentzeko eta III. Eranskinera, berriz, plazak bereizi eta integratzeko. Hirugarren artikulua lanpostu ibiltarien ezaugarriak azaltzen ditu eta laugarrenak dio hornidura-sistema lekualdatze-lehiaketa bidez izango dela, lanpostu berezien kasuan izan ezik, azken honetarako lehiaketa berezia antolatuko delako.

Lehen xedapen gehigarriak berariazko osagarriaren eta dedikazio bereziko osagarriaren zenbatekoak ezartzen ditu, baita ere DBHko lehen zikloko irakasleen lanpostu-mailako osagarriaren gehikuntza. Bigarrenak zuzendarien berariazko osagarria finkatzen du eta hirugarrenak, aldiz, lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizuna irailaren bata baino lehen lortu behar dela dio.

Azken xedapenak dekretua indarrean noiz jarriko den adierazten du.

## **III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Ikastetxe bakoitzeko lanpostuen zerrenda (LPZ), Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako unitateen kopuruaren arabera finkatzen da, hots, urriaren 1eko 228/2002 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duenak xedatzen duenaren arabera, alegia. Aipatutako hitzarmenaren aplikazio aldia, 2002ko urtarrilean hasi eta 2003ko abendura bitartekoa zen, eta berri ez denez, automatikoki luzatu egiten da.

Lehen ere, Euskadiko Eskola Kontseiluak bere desadostasuna adierazi izan du zeren eta 228/2002 Dekretua —ezta sindikatuen aurreko akordioak jasotzen dituztenak ere— ez baitizkiote aurretiaz igorri, baitezpadako irizmena egite aldera, izan ere, lege izaera izateaz gain hezkuntzako plangintzari buruzko oinarritzko gaiak ere ukitu egiten baititu, hau da, langileen lan baldintzen eremura mugatuta ez daudenak, hala nola, zenbatekoa izan behar duen gelako ikasleen ratioak, gelako irakasleen ratioak, eta abar. Gai hauei guztiei buruz bere iritzia eman behar du Kontseilu honek, haren sorrera eta funtzionamendua erregulatzen dituzten arauetan jasotzen den bezala. Hau dela eta, irizmen hau hasteko, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek behar dituzten lanpostuei buruzko azterketa orokorra egiten dugu, eta geroago ekingo diogu aztergai dugun Dekretuaren eremu zehatzari eta Hezkuntza Sailburuordetzak ikastetxeetara igorri duen aplikazio arauari: 2004-05 ikasturte hasierako ebazpena.

2001-02 ikasturtean, 228/2002 Dekretua aplikatzen hasi zenez geroztik, aldaketa handiak gertatu dira sare publikoko ziklo eta etapetako matrikularen osieran, gutxienez hiru faktore direla medio. Aipagarrienetakoa jaiotza tasak izan duen goranzko bilakaera da, halaber garrantzitsua izan da ikasle etorkinak etorri izana eta gurasoek sare publikoaren aldeko aukera gero eta gehiago egin izana.

Azkeneko hiru ikasturte hauetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin alderaturik, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle kopuruaren bilakaera kuantitatiboaren emaitza honako hau da (taula osoa, etapaz etapa, eranskinean):

<i>Ikasle kopurua</i>	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>Δ 3 urte</i>	<i>Δ 3 urte (%)</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	75.865	81.863	5.998	%7,9
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	67.375	63.222	-4.153	%-6,2
GUZTIRA	143.240	145.085	1.845	%1,3

Laburbilduta, beraz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasle kopuruak %7,9 gora egin du eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, berriz, %6,2 behera egin du.

Akordio sindikalaren terminoen aplikazioan, Administrazioak maisu-maistrek DBHko 1. zikloan betetzen dituzten lanpostuen kopurua gutxitu dezake eta neurri berean Haur eta Lehen Hezkuntzakoak gehitu, halatan, bada, maisu-maistren kopuru osoa bere horretan geratzen da LPZan. Aldi honetako bilakaeraren analisisiaz ondorioztatzen denez, matrikulan erregistratutako desbideratzeen heren batera baizik ez da heltzen egoitze hau (taula osoa eranskinean):

<i>Irakasle kopurua</i>	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>Δ 3 urte</i>	<i>Δ 3 urte (%)</i>
Haur eta Lehen Hez. ikastetxeak (maisuu-maistrak)	7.363	7.559	196	%2,7
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (guztira)	7.924	7.718	-206	%-2,5

Honek esan nahi du, horrenbestez, akordioak indarrean iraun duen bitartean, lanpostu baliabide bertsuak izanik, ikasle kopuru handiagoaz arduratu behar izan direla Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta honetaz gain, erronka berrien lanak ge-

hitu beharra dago (etorkinak, eleaniztasuna, lehentasunezko berrikuntza ildoak, eta abar).

Hurbileko etorkizunari begira, ikasle kopuruaren bilakaerak erreferentziazko funtsezko ildoetariko bat izan behar du Sailaren plangintza estrategikoan datozen urteetan, eta isla zuzena izan behar du lanpostuen zerrendei buruzko politikan, aurrekontuei eta antolakuntzari dagokienez. Hartara, bada, EAEko jaiotza tasa berari baino garrantzitsuago iritzi izan zaio ikasle etorkin berrien etorrerari. Esan behar da 1994. urtean hasi (orduan erregistratu baitzen punturik apalena, hots, 15.357 jaiotza) eta 2003. urtera (azkeneko datuak urte honetakoak dira eta, 19.258 jaiotza alegia) bitarteko hamarkadan barrera gorakada etengabea izan dela, bizkorragoa izan dela azkeneko bost urte hauetan, eta are adierazgarriagoa azkeneko urtean:

<i>urtea</i>	<i>jaiotzak</i>	<i>Δ aurreko urtearen aldean</i>	<i>gauza bera (%)</i>
1998	16.169		
1999	16.859	690	%4,3
2000	17.408	649	%3,3
2001	17.718	310	%1,8
2002	18.210	492	%2,8
2003	19.258	1.048	%5,8

Aipatu dugun bigarren faktorea, ikasle etorkin berriak sartzea, alegia, jaiotza tasaren gorakadaren barruan ere sartzen da neurri batean, eta aparteko eragina du; izan ere, etengabe handitzen ari da (gutxi gorabehera %45 urteko) eta batez ere sare publikoa ukitzen du, bertan %70 biltzen baita, matrikulazio batzorde berriak abian jarri diren arren.

Kontuan hartu beharreko hirugarren elementu bat dago, hau da, gurasoek gero eta maizago aukeratzen dute irakaskuntzako sare publikoa. Aldi honetako bilakaera ikusita, hasierako etapetan markatutako joeraren iraunkortasuna egiaztatzen da, hala nola inflexio puntu bat ere Bigarren Hezkuntzan, 2001-02 ikasturtean erdietsitako puntu apalenaz geroztik (datu xeheagoak eranskinean):

<i>Sare publikoko matrikula portzentajeak</i>	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>Δ 3 urte</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	%47,1	%48,5	%1,4
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	%46,4	%47,1	%0,7
GUZTIRA	%46,8	%47,8	%1,0

Bat datoz bilakaera hau eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saileko Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako hurrenez hurrenko inkestetan lortutako emaitzak (2002, 2004). “*Une honetan zure semea edo alaba baitezpadako irakaskuntzan matrikulatu behar bazenu, zein ikastetxe motatan matrikulatuko zenuke?*” galderari erantzunez, sare publikoaren aldeko aukera —bi bertsiotan, inkestaren egikeraren arabera, eskola edo ikastola publikoa, alegia— pribatuaren aldeko aukeraren bi halakoa da kasik, eta azkeneko bi urteetan 6 puntuko igoera erlatiboa izan du.

	2002ko maiatza	2004ko urtarrila
Ikastetxe publiko batean (eskola zein ikastola publikoa izan)	%53	%58
Ikastetxe pribatu batean (itunpeko ikastola zein kolegioa izan)	%31	%30
Ed-Ede	%17	%12

EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko azkeneko txostenean jasotzen zen bezala, adierazitako iritzia eta gauzatutako iritziaren arteko aldea azaltzeko, lehenbiziko faktorea eskaintzaren urritasuna da, bai eskualdeei dagokienez (Bilbo, Donostia, Durangaldea...) bai eskaintza bakanagoa duten etapei dagokienez (Haur Hezkuntza eta DBH).

Irizpena emateko daukagun 2004-05 ikasturteko maisu-maistren LPZari buruzko Dekretuari berriz helduta, azkeneko hiru urte hauetan matrikula gehitzearen (%7,9) eta lanpostu gehitzearen (%2,7) arteko aldea, ikasle/gela ratioak gehituta berdindu da. Aurreko batean ere esana genuen nola sare publikoan lau urtetik goiti ingeles hizkuntzaren sarrera goiztiarra irakasleen gaitasunak eguneratuta egin zen, lan kostuak handitu gabe.

Berrikien gertatutako kasuari gagozkiola, Kontseiluak duela gutxi eman du txosten bat hizkuntza normalkuntzako Ulibarri programa arautzen duen 323/2003 Dekretuari buruz. Bertan, itundutako ikastetxeak diruz laguntzeko sistema bat jasotzen zen, aipatutako eleaniztasun esperientzian erabilitakoaren antzekoa, lanpostuen zerrenda gehitze aldera; hura garatzeko Aginduan, 1,4 milioi euroko diru kopurua egokitzen ziztzaion ikasturte honetan. Ikastetxe publikoetarako xedatzen zenez (5.2.a artikulua), "HNATak (hizkuntz normalkuntzako arduradun teknikoak) astean zehar izango duen ordu-dedikazioa kontuan hartuko du Sailak. Gainontzeko programen lan-kargaz eta ohiko ratioez gainera gehigarriko kontaketa ekarriko du HNATa programa honetan ari izateak". Are gehiago, 17.1 artikulua jasotzen duenez: "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila titularrak den ikastetxe publikoen kasuan, Ikastetxeen Zuzendaritzari dagokio, plangintza garaian, beharrezko neurriak hartzea orduko gainkarga hau bertan txertatzeko". Egiazki, ordea, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako lanpostuen zerrendetan ez da inolako gehikuntzarik izan 2002ko akordio sindikalean finkatutako ratioen aldean. Zalantza izpirik geldu ez dadin, Hezkuntza Sailburuordetzaren 2004-05 ikasturte hasierako Ebazpenak zehazten duenez, "ikastetxeak egoki deritzan ordu kopurua erabili ahal izango du programa honetarako, OOGak (Ordezkaritza Organo Gorena) aldeztatik hala onartuz gero, eta orduok, ordu kredituen kopuruaren barnean esleitu behar izango dituela", hau da, 323/2003 Dekretuak zehazten duenaren kontrakoa, hain zuzen ere.

Kontseilu honek behin eta berriz adierazi du eskolarik gabeko orduen kopuruak ez duela biderik ematen proiektuen koordinazio eta dinamizazio eginkizun gehiago sartzeko, akordio sindikala izenpetzerakoan jasotzen ziren zeregin ugarietz gain: administrazio lanak eta zuzendaritza, astebete baino iraupen laburragoko irakasle ordezkape-nak, koordinazio eginkizunak, Haur Hezkuntzako sostengua eta talde banaketak hezkuntza indartzeko, funtsean. Aipatutako Ulibarri programari buruzko Dekretuaren gaineko irizpenaren kariatara, Batzorde Iraunkorrek bere poza adierazten zuen, zeren eta lehenbiziko aldiz berariazko baliabide pertsonalak esleitzeko irizpidea jasotzen baitzen berariazko proiektuentzat Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, ikastetxe

pribatuen kasuan deskribatu dugun bezala eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan egiten zen moduan.

Errealitatea, batetik, eta legezko testu batean zehaztutakoetan oinarria duen aurreikuspen baikor hau, bestetik, ez datoz bat, ordea. Aitzitik, ikasturte honetan, koordinatzailearen eta Ulibarri programako Hizkuntza Normalkuntzako Batzordeko beste kide batzuen liberazio ordu kopuruaz gain, eskolarik gabeko ordu kopuru berean, proiektuak koordinatzeko honako beste eginkizun berri hauek sartzen dira:

- IKT programaren arduradunaren liberazioak arau gisa xedatzen dira eta, ikastetxearen tamainaren arabera, 4, 5 edo 6 ordu luzatzen dira. Dena dela, emandako denboran ezinezkoa da zehaztutako zereginen zerrenda betetzea.
- Astean ordu bat eta lau ordu bitartean zehazten dira, ikastetxearen tamainaren arabera, Lan Arriskuen Prebentzioko laguntzailearentzat.
- Ordu kredituko zenbait ordu, egutegi arruntetik landa eskolatzen diren ikasle etorkinenganako arreta indartzeko erabiliko dira lehentasunez, irakasle guztiak tarteko direla.
- Ikaskuntza Elkarteen esperientzia garatzen ari diren ikastetxeetan, koordinatzaileak 3 eta 9 ordu bitartean erabili ahal izango ditu astean.
- Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek, 2 eta 6 ordu bitartean.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren kreditazioa eskuratu duten ikastetxeek 3 eta 9 ordu bitartean erabil ditzakete sistema hori kudeatzeko.

Nolanahi den ere, murrizketa hauek ikastetxeko ordu kredituen barruan kontatuko dira.

Hainbeste zeregin berri izanik, 2002ko akordio sindikalean (228/2002 Dekretua) finkatutakoaren aldean, gehienezko muga duten eginkizun bakarrak, ikastetxearen administrazioa, kudeaketa eta zuzendaritza dira. Lehenbizikoz eskatzen da antolakuntzari dagozkion zereginetarako erabilitako berariazko denbora muga dadila. Ebazpenaren arabera, *“Zuzendaritza zereginetan, EGA barne dela, eskuarki eman beharreko asteko orduak esleitzeko arau orokorra honako hau izango da: ikasgela bakoitzeko gehienez 2,5 ordu. 9 ikasgela baino gutxiago dituzten ikastetxeek asteko 13 ordu gehienez esleitu ahal izango diote kontzeptu horri”*.

*Dedikazio arruntzat* ikasleen asteko ordutegia hartuz gero (25 ordu), hau da, irakasleena baino bi ordu gehiago, orduan, delako aipu horrek 228/2002 Dekretuko 3.2.a artikuluan xedatzen dena urratzen du:

- g) “Berariazko ordu kuotak baliatuko dira ikastetxeko zuzendaritza taldeko kideak liberatzeko, honako irizpide honen arabera:

<i>Talde kopurua</i>	<i>Irakasle kopurua</i>
9	1/2
10 - 17	1
18 - 30	1 eta 1/2
31 edo gehiago	2

9 taldetik beherako ikastetxeetan, zuzendaritza taldeko kideak liberatzeko orduak ikastetxearen guztizko ordu kopurutik kenduko dira.

h) Ikastetxeek Administrazio Kudeaketako Arduraduna (AKA) eduki beharko dute honako irizpide honen arabera:

<i>Talde kopurua</i>	<i>AKA kopurua</i>
13 - 15	1/2
16 edo gehiago	1

Honaino, bada, 228/2002 Dekretuak xedatzen duena: zuzendaritza taldearen ordu kuotak izendunak, berariazkoak eta erabilera jakin batekoak dira. Beste alde batetik, AKAk, arautegiak esleitzen dizkion kudeaketa laguntza eta administrazio eginkizunak bete behar ditu, hori dela eta dagokion ordu kopurua ere berariazkoa da.

Orain, alderatzen baditugu, alde batetik, bi eginkizunetarako 228/2002 Dekretuak esleitzen duen denbora, ordutan neurturik, eta bestetik, zirkularrak zehazten duen “eskuarki” izan beharko lukeen gehiena, zera ageri da Ebazpenak, izatez, muga bat jarritzen duela (gehienaz ere 17,5 ordu astean) 14 eta 24 unitate arrunt bitartean dituzten eskola eta ikastola publikoetan (2-12 lerro oso bat 10 unitate dira); honelako ikastetxeetan kokatzen dira ikasle gehienak.

Aitzitik, “dedikazio arrunta” esaten dugunean, irakasleek ikastetxean astean egon beharreko 30 orduko denbora ulertuko bagenu, 30 orduko murrizketaraino hedatuko litzateke aipatutako muga efektua 18 unitateko ikastetxeetan, hots, ikastetxe ia guztietara iritsiko litzateke, eta 38 unitate edo gehiagoko ikastetxeak baizik ez lirateke kanpoan geldituko.

Dena dela, Batzorde Iraunkorraren iritzian, zehaztutako maximoa ez dator bat araudiak dioenarekin, eta izatez ikastetxeetako zuzendaritza eginkizunak mugatzea dakar berekin.

9 ikasgela baino gutxiago dituzten ikastetxeek, Ebazpenak zehazten duenez, “gehienez asteko 13 ordu esleitu ahal izango dizkiote kontzeptu horri”, betiere ordu kopurutik kenduta, ordea; egoera, beraz, ez da aldatzen. Zergatik 13? Ikasgelako 2,5 orduko ratio orokorra aplikatuz gero 20 ordu ateratzen dira 8 ikasgelako ikastetxe batean, 17,5 ordu 7ko batean, eta abar. 6 eta 8 ikasgela bitarteko ikastetxeak dira, hain zuzen ere, hurrengo tartek baino ratio txikixeagoa dutenak, izan ere, aholkulari lanpostu bat izateko 10 ikasgela edo gehiago izan behar da (9 ikasgela izanez gero lanpostu erdia; eta 9 baino gutxiago izanez gero, bat ere ez). Azken finean, itxura denez, ikastetxea antolatzeke denbora urria bada, are muga gehiago gehitzen zaizkio.

Ebazpenean jasotzen denez -OOGak hala onartuz gero-, zuzendaritza taldetako kideek ordutegia malgutu ahal dutela zehazten denean, elementu positibotzat jo behar da, hala ere, horrek ez du aldatzen aztergai dugun ordu zenbaketa.

Batzorde Iraunkorrek behin eta berriz adierazi du zuzendaritza lanak pizgarriak behar dituela. Talde hauek berritzeko prozesuetarako deialdirako hilabete gutxi falta direla, ordu murrizketa hau beste eragozpen bat izan daiteke hautagaiak aurkezterakoan.

Laburbilduz:

1. Ez da kontuan hartu indarrean dagoen araudia, Ulibarri programa arautzen duen 323/2003 Dekretuko 5.2.a eta 17.1 artikulua garatzeari dagokionean. Eskola Kontseilu honen eskaera da, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantilak zabalduak izan daitezela, zehaztutako ordu kuoten arabera; eta, horrenbestez, 2004-05 ikasturte hasierako Ebazpena, figura honen ordu dedikazioa ikastetxeko ordu kopurutik kentzeko bidea ematen duena, alegia, zuzendua izan dadila.
2. Era berean, 2004-05 ikasturte hasierako Ebazpena ez dator bat legearekin, 228/2002 Dekretuak zuzendaritza taldearentzat eta Administrazio Zereginetarako Arduradunarentzat zehazten duen denbora ikastetxe gehienetan murrizten duelarik. Horrenbestez, Batzorde Iraunkor honen eskaera da, atal honetan ere, Ebazpena zuzendua izan dadila.
3. Azkeneko proiektuetako koordinatzaileei eta oraindik orain agertu diren irakasleentzako beharrezko berriei ordu gehiago esleitzeko, tamaina finkoa duen "ikastetxeko ordu kreditura" betiere jotzeko sistemak honako hauek dakartza: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako hezkuntza berriztatzea eragozten du, baliabideak kentzen ditu ohiko administrazio, antolakuntza eta zuzendaritza zereginetatik, eta ez dio biderik ematen ikastetxeen autonomiari, ez baitu baliabide berririk ematen beharrezko berrietarako eta ez baitio ikastetxeari berea duen ordu kreditua kudeatzen uzten, hots, berea duen autonomia zona. Kontseilu honen behin eta berriz adierazi du praktika administratibo oker honen aurka dagoela eta eskatzen du zuzendua izan dadila, eta irakasleen plantilak, ordu kuota berriak metatuta erdiesten diren ordu kopuruez osotuak izan daitezela. Era berean azpimarratu nahi du zuzendaritzaren eginkizuna motorea dela hobekuntzarako eta aldaketarako, Sailak 2003-06 Berriztapenerako planean zehaztutako helburuetatik ondorioztatzen den gisan.
4. Euskadiko Eskola Kontseiluak berriz ere adierazi nahi du hezkuntza plangintza ukitzen duten arauetara buruz alde aurretik irizpenak emateko eskubidea duela, eta bereziki, irakasleen lanpostuen zerrendei buruzkoak. Hartara, bada, agerian utzi nahi du ez datozela bat lanpostuen zerrendak eta azkeneko urteotan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan gertatu den matrikulazio gorakada; alderantziz, irakasleak/ikasgela ratioak berberak dira eta irakasleak/ikasgela ratioa, be-



rriz, handitu egin da, beraz, bete beharreko zereginak gero eta gehiago dira. Jaio-tza tasaren joera goranzkoa da eta ikasle etorkinak gero eta gehiago dira, beraz, iragar daiteke epe luze eta ertainera matrikula asko handituko dela bi etapa haue-tan. Irakasleen aldetik, handia da bitarteko eta ordezeko irakasleen kopurua. Gi-zarteak eskatzen duen kalitatezko hezkuntza publikoa eskaini ahal izateko, Sai-laren lehentasun estrategikoetarikoen artean, premiazkoa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen lanpostuen zerrendak handitzea eta egonkortzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2.004ko irailaren 20an

IDAZKARI TEKNIKOA

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz.Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.

## 04/09 IRIZPENAREN ERANSKINA

### a) Ikastetxe publikoetako ikasleen garapena, etapen arabera. 2001-02 eta 2004-05 ikasturteak.

	2001-02	2004-05	$\Delta$ 3 urtetan	$\Delta$ 3 urtetan (%)
Haur Hezkuntza: 2 urte.	7.306	7.700*	394	5,4%
Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-5 urte)	24.047	26.773	2.726	11,3%
Lehen H.	44.512	47.390	2.878	6,5%
DBH	32.446	30.778	-1.668	-5,1%
DBO	34.929	32.444	-2.485	-7,1%
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan	75.865	81.863	5.998	7,9%
Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan	67.375	63.222	-4.153	-6,2%
GIZTIRA	143.240	145.085	1.845	1,3%

\*estimazioa: 2003/04 ikasturtean 7.574 izan ziren.

### b) Gela edo unitateen garapena, epe berean.

<i>Etapen araberako unitateak</i>	2001-02	2004-05	$\Delta$ 3 urtetan	$\Delta$ 3 urtetan (%)
Haur Hezkuntza	1.993	2.097	+104	5,2%
Lehen Hezkuntza	2.737	2.777	+40	1,5%
DBH	1.825	1.672	-153	-8,4%

### c) LPZ-en garapena.

	2001-02	2004-05	$\Delta$ 3 urtetan	$\Delta$ 3 urtetan (%)
Haur eta Lehen H.ko ikastetxeak (maisua-maistrak)	7.363	7.559	196	2,7%
Maisu-maistrak Bigarren H.-ko ikastetxeetan (1)	1.890	1.675	-215	-11,4%
Bigarren Hezkuntzako irakasleak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan (2)	6.023	6.030	7	0,1%
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (guztira)	7.913	7.705	-208	-2,5%
Helduen Hezkuntzako ikastetxeak (guztira) (3)	549	575	26	4,7%
Maisu-maistrak bestelako lanpostuetan	52	49	-3	-5,8%
Bigarren H.-ko irakasleak bestelako lanpostuetan (4)	405	394	-11	-2,5%
Guztura	16.282	16.282	0	0%


(1) Maisu-maistrak DBHn eta Zereginen Ikaskuntzarako geletan (ZIG)

(2) Gela arruntak, kurrikulum-aniztasuna, ZIG eta Urrutiko Batxilergoa.

(3) Maisu-maistrak eta Bigarren H.-ko irakasleak Helduen Hezkuntzan, eta Urrutiko Oinarritzko Hezk.

(4) Bestelako lanpostuak: Hizkuntza Eskola Ofizialak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak.

**d) Jaiotzen garapena EAEn**



<i>urtea</i>	<i>jaiotzak</i>	<i>Aurreko urteari buruzko gehikuntza</i>	<i>Gehikuntza metatua</i>
1998	16.169		
1999	16.859	4,3%	4,3%
2000	17.408	3,3%	7,7%
2001	17.718	1,8%	9,6%
2002	18.210	2,8%	12,6%
2003	19.258	5,8%	19,1%

**e) Sare publikoaren kuotaren garapena, etapan arabera.**

	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>Δ 3 años</i>
Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-5 urte)	49,3%	49,7%	0,4%
Lehen H.	46,0%	47,8%	1,8%
DBH	41,6%	42,1%	0,5%
DBHO	52,0%	53,0%	1,0%
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	47,1%	48,5%	1,4%
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	46,4%	47,1%	0,7%
GUZTIRA	46,8%	47,8%	1,0%

**HEZKUNTZA EAEN**

(Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2004ko ekaina)

(21. orrialdea)

**Derrigorrezko hezkuntzaz arituko gara, hau da, 16 urte arte. Gaur egun Euskadin derrigorrezko hezkuntza nolakoa da, zure ustez: ona, hala-holakoa, edo txarra?**

	2002ko maiatza	2004ko urtarrila	Seme-alabek ikasten duten zentroa			
			Hurtzaindegian Edo hauteskolan	Zentru Publikoan	Zentru Pribatuan	Gainerakoak*
Ona	60	67	53	71	68	67
Hala-hola	26	21	30	21	27	20
Txarra	6	3	3	3	2	3
Ed-ee	8	9	15	5	4	10
Guztira	100	100	100	100	100	100

\*Gainerakoak: ez dauka 16 urtez azpiko seme-alabarik ikasten

(35. orrialdea / pag. 35)

**“Momentu honetan seme-alabaren bat derrigorrezko hezkuntzan matrikulatu beharko bazenu, zein zentro motatan matrikulatuko zenuke?”**

	2002ko maiatza	2004ko urtarrila
Eskola edo ikastetxe publiko batean	31	32
Ikastola publiko batean	22	26
Ikastetxe pribatu batean	20	20
Ikastola pribatu batean	11	10
Ed-ee	17	12
(Ehuneko bertikalak)	100	100

**g) Zuzendaritza-, kudeaketa- eta administrazio-zereginetarako asteko lanorduak.**

**A hipotesia: Deditazio arrunta = 25 ordu astean.**

<i>Zuzendaritza-taldea eta AKArentzako, orokorrean, asteko ordu kopurua</i>			
<i>Gela kopurua</i>	<i>Dekretuaren arabera</i>	<i>Maximoa zirkularren arabera</i>	<i>Ordu aldaketa</i>
10	25	25	0
12	25	30	+5
14	37,5	35	-2,5
16	50	40	-10
18	62,5	45	-17,5
20	62,5	50	-12,5
22	62,5	55	-7,5
24	60	60	0
26	62,5	65	2,5
30	62,5	75	12,5
34	75	85	10
38	75	95	20

**B hipotesia: Deditazio arrunta = 30 ordu astean..**

<i>Zuzendaritza-taldea eta AKArentzako, orokorrean, asteko ordu kopurua</i>			
<i>Gela kopurua</i>	<i>Dekretuaren arabera</i>	<i>Maximoa zirkularren arabera</i>	<i>Ordu aldaketa</i>
10	30	25	-5
12	30	30	0
14	45	35	-10
16	60	40	-20
18	75	45	-30
20	75	50	-25
22	75	55	-20
24	75	60	-15
26	75	65	-10
30	75	75	0
32	90	80	-10
34	90	85	-5
36	90	90	0
38	90	95	5